

# Identitatea, gurea ez

'IDENTITATEA ETA INGURUNEA CURRICULUMEAN'.

Euskal identitatea testuliburuetan nola agertzen den aztertzeke tesia egin du Gurutze Ezkurdia EHUko irakasleak

ASIER ITURRIAGAETXEBARRIA - BILBO

**G**urutze Ezkurdia Bilboko Magisteritza Eskolako irakasleak aspalditik dauka kezka bat barru-barruraino sartuta. Historia ikasketak egiten ari zela, Euskal Herriko historiaren berririk ia ez zeukala ohartu zen. Francoren garaian ikasi zuen berak, baina urteak aurrera egin arren, sasoi hartako egoerak antzera jarraitzen duela konturatu zen. Magisteritza Eskolan lanean hasi zenean, Begoña Bilbaorekin eta Karmele Perez Urrazarekin egin zuen topo, eta hirurak antzeko kezka zutela ohartu ziren. Hala, hirurak batera XX. mendeko euskarazko testuliburuak sistematikoki hustu zituzten, testuak eta ikonoak aztertuz, edukia nolako den jakiteko asmoz —Gabonak aldera kaleratuko dituzte azterketaren emaitza orokorrak—. Lan horretatik, beste hainbat lan jaio dira. Bilbaok *Kultura erreferenteak oinarritzko hezkuntzako curriculumean* tesia egin zuen, eta Perez Urrazak *Zientzia, teknologia eta lanbideen agerpena Euskal Herriko testuliburuetan* tesia. Biek liburu bana argitaratu dute lanaren ondorioekin. Ezkurdiak joan den ekainaren 7an defendatu zuen bere tesia Bilboko Magisteritza Eskolan: *Identitatea eta ingurunea curriculumean*. Cum laude

kalifikazio gorena eskuratu zuen. Besteen biderei jarraituta, gabonak aldean bere lana bilduko duen liburua argitaratu du.

Ezkurdiak azaldu duenez, testuliburuak dira eskoletan eskaintzen diren edukiak zeintzuk diren jakiteko tresna egokienak. «Curriculumak testuliburuak edukietan islatzen da. Curriculumak hor dago, eta argialetxeek moldatu egiten dute, irakasleari lan mordo bat kenduz. Baina testuliburuetan ikusten da gure curriculumak ez duela betetzen legeak esaten duena. Curriculumeko %45 daukagu gure irakaskuntzarako, baina ez dugu betetzen legeak esaten duena», esan du Bilboko Magisteritza Eskolako irakasleak.

Curriculumean identitatearen osaketa nola egiten den aztertu du Ezkurdiak bere lanean. Azpimarratu duenez, identitate mota asko daude, baina horiek bere ingurunearekin dute zerikusia, horrekin harremanetan osatzen direlako. Identitate mota asko izan arren, identitate soziokulturala eta hegemonikoaren agerpenak aztertu ditu batez ere —indarrean dagoenaren agerpena, estatuarena—, lurraldearekin eta historiarekin lotuta. Identitateak lurraldeari lotuta daukan agerpenari dagokionez, XX. mendean hiru aro egon direla agertu du. Hasieran (1876tik 1969ra), ikuspegi soziokultura-



5. MAILAKO testuliburuak bakarrik aztertu ditu Gurutze Ezkurdiak, eta ikasturte horretan Euskal Herriko historian ez dela gehiegi sakontzen dio. Joera hori hurrengo ikasturteetan ere ematen dela uste du. JAGODA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

ko nagusi zen testuliburuetan. Bigarren aroan, 70eko hamarkadatik 90eko hamarkadara, Iparralde eta Hegoalde bereizten hasi ziren. Hirugarren aroan, 90eko hamarkadan, egoera «irauli» egin zela dio Ezkurdiak. «90eko hamarkadatik hona liburu gehienak autonomikoak dira. Estatuko ikuspegiak indarra galtzen du ikuspegi autonomiazalaren alde. Hau da, egoera nahasia da; euskaldunak gara, baina kataluniarrak izan gaitezkeen bezala».

Identitate soziokulturala osatzerakoan lurraldeak daukan eraginaren barruan aztertzerakoan, barne lurraldearen presentzia ere aztertu du Ezkurdiak bere lanean. Hala, Euskal Herri-

ko zazpi herrialdeen presentzian orekarik ez dagoela nabarmendu du. «Ikonoeri begiratuta, ikuspegi autonomiazalea nagusi dela nabari-nabaria da. Bizkaia eta Gipuzkoa agertzen dira gehien ikonoetan, eta Iparraldeko herrialdeen presentzia erabat testimoniala da. Nolako identitate soziokulturala eraiki dezakegu horrela?», galdetu du. «Erronka handia daukagu horretan; beste proposamen bat egin behar dugu», gaineratu du.

## Historia aztertzean, Euskal Herria ez da ageri

Curriculumean denboraren agerpena nola egiten den ere landu du Ezkurdiak. Berak kronograma deitzen dion azterketa egin du. Horretarako, hainbat aldagai izan ditu kontuan: monumentuak, marrazkiak... Aro historikoak ere landu ditu, historiaurretik hasita gaur arte. Emaitzetatik ondorioztatu duenez, historiak aurrera egin ahala, gero eta gehiago zehazten da sasoi hartako biztanleak nongoak ziren. «Euskal Herria historia luzea omen duen herria da, eta, egia da, historiaurrean bizi zirenak nongoan ziren ez dakigula. Hala ere, zaila da Santimamiñeri edo Ekaineri buruzko aipamenak ikustea testuliburuetan, eta, agertzen badira, badaezpada, ez dira inoiz euskaldunekin lotzen. Altamirako kobak errazago agertuko dira, eta horiek bai, horiek berehala lotzen dira Espainiarekin», azpimarratu du Ezkurdiak. Hala ere, historiaren

## esanak



### GURUTZE EZKURDIA

(EHUko irakaslea)

«90eko hamarkadatik hona testuliburu gehinek ikuspegi autonomikoa lantzen dute»

«Zaila da Santimamiñeri buruzko aipamenak ikustea; Altamirakoak bai, ordea»

azterketa egitean 5. mailako testuliburuak bakarrik aztertu dituela esan du, eta ikasturte horretan historiako edukiak ez direla gehiegi sakontzen. «Hala ere, joera hori dela sumatzen dut. Hurrengo ikasturteetan ere identitate soziokulturala oso gutxi lantzen dela uste dut», argitu du.

## EUSKAL CURRICULUMA

### Akordio sozial «zabala» eskatu du Ezkurdiak

Euskal curriculumak osatzeko bidean oinarriak jarri ditu oraintsu Ikastolen Elkarteak, *Euskal curriculumak*. *Kultur libildideak* izeneko lanaren bitartez. Gurutze Ezkurdia Bilboko Magisteritza Eskolako irakasleak ondo ikusten ditu «curriculumean aurrera egiteko ekimen guztiak, baina ez da oso baikor agertu. «Ez naiz oso baikorra. Gure curriculumeko %45 osatzeko daukaguna moldatzea da joera, Euskal

Herria ardatz hartuta. Baina, nire ustez, ezinbestekoa da Euskal Herri guztirako legea egitea», esan du. Era berean, legea lantzeko denbora askorik ez dugula azpimarratu du. «Egiten dugu edo akabo. Azken hatsak ematen ari gara. Frantziak bere curriculumak du, Espainiak berea, eta gu bien artean itotzen ari gara. Ezinbesteko zerbait da, euskara, kultura eta lurraldea transmititu gura badira», dio.

Era berean, curriculumak osatzeko «akordio sozial zabala» behar dela nabarmendu du Bilboko Magisteritza Eskolako irakasleak. «Ikastolez gainera, beste gizarte eragileak sartu beharko dira curriculumak osatzeko prozesuan. Oraingoan, egin dira ahalegin batzuk ikastoletan, baina ez dugu ahaztu behar ikastoletako curriculumak ikastoletakoak direla, eta hor ditugula eskola publikoak eta pribatuak. Ekarpenean ondo daude, baina izan behar da curriculum nazional baten proposamena», adierazi du.